07 / BASQUE CULINARY CENTER, GASTRONOMIEN ZIENTZIAN URRATS IZUGARRIA

18 / JON ALTUNA, VICERRECTOR ACADÉMICO DE MONDRAGON UNIBERTSITATEA



20 / EKINTZAILETASUNA GAZTEEN ESKUETAN

# MUniversitas

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ALDIZKARIA | 2011ko udazkena | 19. zenbakia

## NAZIOARTEKO KOMITEAK EZ DU SARITU MU-K, IK4-K ETA CSIC-EK AURKEZTUTAKO PROIEKTUA.




GIZATASUNA LANEAN MONDRAGON

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Entitate laguntzailea.
Entidad patrocinadora
CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

# La Guipuzcoana

**ZERBITZU ERREGULARRA ETA DISKREZIONALA**
ESKATU AURREKONTUA

SERVICIO REGULAR Y DISCRECCIONAL
PIDA PRESUPUESTO

## IBILBIDEA eta ORDUTEGIA 2011 / 2012

### AZPEITIA - ARRASATE / OÑATI / ESKORIATZA

| AZPEITIA 1-Anbulatorioa 2-Igerilekua | AZKOITIA 1-Julio Urkijo 2-Goiko-Kale | ELGOIBAR Markina-ra bidea | EIBAR Gasolindegia | ARRASATE Garibai | ARRASATE Garaia | ESKORIATZA HUHEZI | OÑATI Enpresagintza Fakultatea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 06:30 | 06:38 | 06:55 | 07:05 | 07:30[1] | 07:45 | 07:45 | |
| 12:10 | 12:03 | 12:20 | 12:30 | 13:00/13:35[2] | 12:55 | | 13:20 |
| 14:50 | 14:42 | 14:25 | 14:15 | 13:35 | | | 13:40 |
| 20:30 | 20:17 | 20:00 | 19:50 | 19:30 | 19:25 | 19:15 | |

(1) Geltoki eta ordu honetan, Oñatiko ikasleek garraio publikoa hartu beharko dute Oñatira joateko.
(2) Geltoki honetan, 13:00etan, Eskoriatzako ikasleek garraio publikoa hartu beharko dute Eskoriatzara joateko.
13:35ean, Eskoriatzatik garraio publikoan datozen ikasleak, unibertsitateko autobusean igoko dira Azpeitiarantz joateko.



IBAI-ONDO 20 • 20720 AZKOITIA • GIPUZKOA • Tfno.: 943 851159 • Fax: 943 857072
www.laguipuzcoana.net • info@laguipuzcoana.net

KM
kulturunea

# Koldo Mitxelena




KOLDO MITXELENA Kulturunean egiten diren ekitaldiak interneten bidez ikus ditzakegu, dohaineko RealVideo programa instalatu bezain pronto ikus:
www.gipuzkoa.net/kultura







KOLDO MITXELENA Kulturuneko Liburutegiko liburuak zure esku daude; zure ohiko liburutegian eska ditzakezu, bertako liburuzainek guri eskatuko dizkigute eta biharamunean zurean izango dira. Zehaztasun gehiago: lam-pib@gipuzkoa.net

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

Koldo Mitxelena Kulturunea, Urdaneta 9. 20006 Donostia. www.gipuzkoakultura.net

## AURKIBIDEA

03
Editoriala

04-08
Berriak

09
Iritzia · Aitor Urzelai

10-12
Gai nagusia

13
Iritzia · Juan José Damborenea

14
Alecop

15-17
Fakultateak

18-19
Elkarrizketa · Jon Altuna

20
Kimu berri

21
Doktore tesiak

22-23
Nazioarteratzea

24
Kirol Zerbitzua

25
Bizitza unibertsitarioa

26
Agenda

# MEREZI IZAN DU

AAitortza ofizialik gabe, onarpenik gabe bueltatu dira MUko ordezkariak Madrildik, baina ez esku hutsik Nazioarteko Komitearen errekonozimendurik jaso ez badute ere, eta Nazioarteko Bikaintasun Campus izendapen ofizialik gabe bueltatu badira ere, izendapen prozesuan parte hartzea merezi izan du. Asko dira arrazoiak, baina nagusiak nabarmendu nahiko genituzke.

Hedatu egin du Mondragon Unibertsitatearen izena Estatuan eta atzerrian, bistaratu egin du MUren proiektua, metodologia, izaera eta egiteko era. Era berean, Ministerioak erakutsi du aintzat hartzen duela MU eta gustuko duela hemengo modeloa.

Badira beste irakurketa positibo batzuk ere. Aurten kontsortzio bat eratu dute MUk, IK4 ikerketa guneak eta CSIC erakundeak (Consejo Superior de Investigaciones Científicas) eta elkarrekin bideratu dute Madrilen aurkeztutako proiektua. Hiru esparrutan ditu oinarriak aipatu egitasmoak: ezagutza, ikerketa eta transferentzia. Oinarri horiekin lantaldea eratu dute, eta kolaboratzaile bilakatu dira eta horrek ere izango ditu ondorio onak etorkizunean.

Garrantzitsua da IK4 eta CSIC moduko erakundeek MUren bidelagun izatea onartu izana, eta Nazioarteko Bikaintasun Campus izendapen prozesuan elkarrekin parte hartzeko gonbitea onartu izana.

Hain justu ere, ezagutza ikerketan aplikatu eta hori guztia enpresei transferitzea da MUren hezkuntza ereduaren ezaugarri nagusienetakoa, eta hiru erakundeek bat egiten dute asmo horrekin. Gainera, garrantzitsua da IK4 eta CSIC moduko instituzioak MUren bidelagun izatea eta Nazioarteko Bikaintasun Campus izendapen prozesuan elkarrekin parte hartzeko gonbita onartu izana.

*“Garrantzitsua da IK4 eta CSIC moduko erakundeek MUren bidelagun izatea onartu izana, eta Nazioarteko Bikaintasun Campus izendapen prozesuan elkarrekin parte hartzeko gonbita onartu izana”.*

Hazia landatzeko beste aukera bat eskaintzen dio horrek gure erakundeari, harreman sarea indartzeko aukera ematen dio eta etorkizunerako aukera gehiago edukitzea ahalbidetzen dio. Horrexegatik guztiagatik diogu merezi izan duela. Errekonozimendurik jaso ez badugu ere, etorkizunerako balio izan du.

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

**MUniversitas**

**Argitaratzailea** Mondragon Unibertsitatea • Loramendi 4 • (23. p.k.) ARRASATE 20500 (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 85 | Faxa: 943 71 21 93 | E-posta: info@mondragon.edu

**Koordinatzailea** Arteman Komunikazioa | **Erredakzio kontseilua** Joxe Aranzabal, Susana Azpilikueta, Maria Angeles Iñurritegi eta Idoia Peñakoba
**Laguntzaileak** Goio Arana, Alex Barandiaran,Iñaki Larreta eta Aitor Zuberogoitia
**Tirada** 5.500 ale | **Lege gordailua** SS-1360/05 | **Diseinua eta publizitatea** Arteman Komunikazioa
**Azaleko ilustrazioa** Lorena Martínez | **Argazkiak** M.U / Josetxo Aranzabal | **Moldiztegia** MCC Graphics

## II JORNADA UNIVERSITARIA: TIC Y EDUCACIÓN

Mondragon Unibertsitatea ha organizado por segundo año consecutivo la Jornada Universitaria: *las TIC y la Educación*, con el objetivo principal de conocer y compartir las experiencias de uso con las TIC, para aprender los unos de los otros y, de paso, reflexionar juntos sobre el futuro. Tanto las ponencias y comunicaciones, como el debate surgido en torno a éstas, fueron valorados como muy interesantes por los asistentes.

La jornada trató sobre dos temas generales: las experiencias con herramientas Web 2.0 y las experiencias de enseñanza *e-Learning u on line*.

Arrancó la jornada con la ponencia inaugural de Olga Herrero, consultora de RocaSalvatella, quien habló de *Las tendencias y prácticas innovadoras* en la enseñanza *on line* de adultos. A continuación, los asistentes disfrutaron con las comunicaciones de Aitor Bediaga, Eugenio Astigarraga, Osane Lizarralde, Jon Abaitua y Markel Gutierrez, que expusieron sus experiencias con las distintas herramientas Web 2.0, como por ejemplo, la utilización de los *sites* para hacer seguimiento de los alumnos en prácticas, o el blog empleado en BCulinary Udan. Maite Goñi presentó la ponencia *"Gela birtualetatik ikasketa ingurune pertsonalizatuetara"* ,en la que compartió con el resto de profesores de MU el objetivo y el diseño de su *Personal Learning Environment*. Por último, en el apartado relativo a las experiencias de enseñanza *E-learning* u *on line*, contamos con la presencia de Izaskun Agirre y Arantza Ozaeta, quienes nos acercaron la visión de la coordinación de dos titulaciones *on line*, un Máster oficial y dos experiencias *In company*.



**MOTORRAK** Goi Eskola Politeknikoko Ingeniaritzako ikasleak Renault Autoberrik emandako barne-errekuntzako motorrekin praktikak egiten.

## AUTOBERRI DONA MOTORES DE COMBUSTIÓN PARA PRÁCTICAS DE INGENIERÍA

Renault Autoberri ha donado diez motores de combustión de última generación a la Escuela Politécnica Superior. Son motores equipados con la última tecnología de combustión del mercado, que servirán para realizar prácticas.

Estos motores de combustión de última generación servirán para que los alumnos realicen múltiples trabajos con ellos. Partiendo de un análisis de materiales -los motores son sometidos a altas temperaturas y condiciones de fricción extremas-, hasta un estudio "vibracional" de todo el conjunto -con lo que ello supone en la transmisión, desde el motor al resto del vehículo-, enumeración de posibles mejoras de soplado del aire de entrada, análisis de los diferentes subsistemas –refrigeración y turbocompresores-, así como el desarrollo de toda la electrónica de control. Desde la Escuela Politécnica Superior de Mondragon Unibertsitatea están muy agradecidos de poder contar con motores de última generación para su alumnado.

BERRIAK

## ORIGINALIDAD Y VIABILIDAD EN EKITEN

HAN SIDO 180 LOS ALUMNOS QUE HAN PARTICIPADO EN LA QUINTA EDICIÓN DEL PROGRAMA DE EMPRENDIZAJE EKITEN PROMOVIDO POR MONDRAGON UNIBERTSITATEA, Y 56 LOS PROYECTOS PRESENTADOS.

Los proyectos más viables y con capacidad de generar mayor empleo y riqueza han sido los elegidos por el jurado. Los criterios que han primado han sido el impacto de la idea, la viabilidad y la multidisciplinariedad del equipo, así como la originalidad.

En la modalidad de Nuevas Ideas Empresariales, el primer premio lo ha obtenido el proyecto *Comodidad en las compras, compras sin carritos*; el segundo premio ha sido otorgado a *Aplicación móvil para facilitar el aparcamiento en pueblos y ciudades*; y el tercero para *Disainnitek*.

En el apartado de Ideas y Proyectos para el Desarrollo del Medio Rural el primer premio es para *BaserriTIK*; y el segundo y tercer premios han quedado desiertos. Por último, en el apartado de Materia de Juventud, Ocio y Deporte, los galardonados han sido *Bike washer, ActinMap* y *Whoru*, respectivamente.

# EL DISEÑADOR DE FERRARI MAURIZIO CORBI OFRECIÓ UNA CONFERENCIA EN MU

**MAURIZIO CORBI** italiarrak jende aurrean eginiko marrazkia. Aho bete hortz utzi zituen hitzaldi eta erakustaldira gerturatutakoak.



LA PRESENCIA DE MAURIZIO CORBI EN LA ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR DE MONDRAGON UNIBERTSITATEA, SE ENMARCA DENTRO DEL IV CONCURSO INTERNACIONAL DE DISEÑO MAIER.

El objetivo del concurso internacional, que cuenta con la colaboración de la Asociación de Diseñadores Industriales de Euskadi (EIDE), es premiar las mejores propuestas de diseño en el ámbito de los vehículos de automoción y dirigido a diseñadores de automoción mundiales.

A la final llegaron seis proyectos de alumnos de MU, cinco individuales y uno en grupo, de ocho alumnos del tercer curso del Grado de Ingeniería de Desarrollo de Producto y Diseño Industrial, y del Máster de Diseño Estratégico de Productos y Servicios Asociados.

Estos seis proyectos han sido elegidos entre 99 trabajos de diseñadores del País Vasco, Navarra, La Rioja, Cataluña, Francia, Holanda, Rusia, India, Brasil y Estados Unidos.

Maier es una de las empresas que tiene presencia en el AIC de Zornotza (Centro de Inteligencia de Automoción dedicado a la mejora de competitividad de las empresas de automoción), junto con el resto de las principales empresas vascas de investigación, desarrollo y producción de componentes y sistemas de automoción del tejido empresarial vasco.

# I SEMINARIO EN INNOVACIÓN PEDAGÓGICA EN ENSEÑANZAS TÉCNICAS EN MONDRAGON UNIBERTSITATEA

En el campus de Arrasate y organizado por la Escuela Politécnica Superior de Mondragon Unibersitatea , se celebró el pasado mes de julio el I Seminario de Innovación Pedagógica en Enseñanzas Técnicas, que contó con la participación de relevantes ponentes de universidades como Aalborg (Dinamarca), Universidad de Lleida, Universidad Politécnica de Cataluña, así como el personal docente del conjunto de la Escuela Politécnica Superior de Mondragon Unibertsitatea. A la citada jornada asistieron también numerosos profesores y profesoras de Bachillerato de Arizmendi Ikastola.

## TRANSFORMACIÓN DE PRÁCTICAS PEDAGÓGICAS

La disciplina denominada como innovación en el aula investiga principalmente la transformación de las actuales prácticas pedagógicas a partir de la reorganización de las relaciones, estructuras y elementos que la componen. Siendo ésta, la innovación, una alternativa pedagógica que mejora la eficiencia, equidad y calidad en los procesos de enseñanza-aprendizaje.

## METODOLOGÍAS ACTIVAS

En este primer seminario, las metodologías activas, la evaluación y la tutoría en los contextos de enseñanza-aprendizaje fueron los temas centrales que se debatieron ampliamente a lo largo de las dos jornadas del intenso trabajo que duró el evento.

## VALORACIÓN MUY POSITIVA

El equipo organizador ha valorado positivamente las conclusiones recogidas de los participantes y que han contribuido a que el conjunto de asistentes pueda conocer de esta manera distintas alternativas de cara al desarrollo y la evaluación del alumnado y alumnas en base a competencias; y poder así, por consiguiente, aplicarlos en aras a conseguir una mejora continua en el sistema de enseñanza que se ofrece a nuestro alumnado.

## ARIANE IRAZUSTA, MUTELEBISTAREN AURPEGI BERRIA



Jakinda ikasketak amaitutakoan Itziar Irizarrek ez zuela gehiago aurkeztuko MUtelebista, uztailaren hasieran telebistako taldeak *casting* bat egin zuen Eskoriatzan Ikus-entzunezko komunikazioa ikasten ari diren ikasleen artean. Guztira 10 lagun aurkeztu ziren 2011-2012 ikasturtean MUtelebistako aurkezlea izateko.

Aukeratua, berriz, Ariane Irazusta ikasle donostiarra izan zen, ikasturte honetan 3. mailan dabilena. Dagoeneko Arianek hainbat erreportaje aurkeztu ditu. Horien artean dira, besteak beste: Mondragon Unibertsitateko ikasturte hasierako erreportajea, atzerriko ikasleen masterren gainekoa, Basque Culinary Center-en inaugurazioaren ingurukoa... Asko izan dira, dagoeneko Ariane Irazustak aurkeztu dituen erreportajeak.

### JARRAITZAILE KOPURUA GORA

MUtelebistak ikusle kopuru garrantzitsua lortu du epe laburrean. Iaz abiatu zenetik asko dira sarean dituen jarraitzaileak, eta gero eta handiagoa da asteazkenero unibertsitateko telebista korporatiboak eskaintzen dituen erreportajeen ikusle kopurua.

**ORDEZKARITZA INSTITUZIONALA**

Asko izan ziren MUren ikasturte hasiera ekitaldi ofizialera gerturatutako agintariak. Patxi Lopez lehendakariarekin batera, Isabel Celaa sailburua eta Martin Garitano diputatu nagusia ere izan ziren Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza fakultatean.



ARGAZKIA: M.U.

BERRIAK

## MU INAUGURÓ EN OÑATI EL NUEVO CURSO ACADÉMICO

En la apertura de curso participaron, entre otros, el lehendakari Patxi Lopez; la consejera de Educación e Investigación. Isabel Celaá; el diputado general. Martín Garitano; el rector de MU. Iosu Zabala; la secretaria general de MU. Idoia Peñacoba; y el presidente de Mondragon Unibertsitatea. Javier Sotil.

El nuevo campus de Aretxabaleta, especializado en Comunicación Audiovisual, la puesta en marcha de la Facultad de Ciencias Gastronómicas y Artes Culinarias y su centro de I+D, los nuevos máster universitarios o la apuesta por la innovación en su plan estratégico, marcaron la apertura oficial de curso de Mondragon Unibertsitatea.

En el acto de inauguración, el rector Iosu Zabala subrayó que MU ha apostado y apostará por la innovación con dos iniciativas pioneras. La primera, la creación hace dos años del Grado LEINN, único de estas características que se imparte en el Estado; y la segunda, la apuesta por el Basque Culinary Center, un proyecto eminentemente innovador.

### NUEVA OFERTA

Mondragon Unibertsitatea ofrecerá durante este curso un total de 12 títulos de grado adaptados a Europa: seis en Ingeniería, dos en Empresariales, tres en humanidades (dos en educación y una en comunicación audiovisual). Además, pondrá en marcha nueve máster universitarios, y más de una treintena de títulos propios, cursos expertos o avanzados repartidos en sus campus, así como cinco dobles diplomas, todos ellos en colaboración con universidades francesas en el campo de la ingeniería.

# BASQUE CULINARY CENTER, GASTRONOMIA ZIENTZIAN URRATS IZUGARRIA



DAGOENEKO IREKI DITU ATEAK MU-K KUDEATUKO DUEN GASTRONOMIEN ZIENTZIEN FAKULTATEAK DONOSTIAN. BASQUE CULINARY CENTER DOTOREKO SUKALDEAK ABIAN DIRA URRITIK. IKERKUNTZA ZENTROA ERE IZANGO DA, UNEORO GASTRONOMIAREN ARLOAN PUNTA-PUNTAN EGON AHAL IZATEKO ETA BERRIKUNTZAN TREBATZEKO.

OLATZ ARTOLA
*(Komunikazio ikaslea HUHEZIn)*

Irailak 26. Eguerdia Donostian. Egun berezia gastronomia maite dutenentzat. Basque Culinary Center (BCC) inauguratzeko garaia iritsi da, Goi Mailako sukaldaritza ikasketak eskainiko dituen lehen unibertsitatea. 200 pertsona inguru daude aurkezpenean. Horien artean, Asturiasko printze -printzesak eta Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakaria Patxi Lopez. Mondragon Unibertsitatearen izenean, Iosu Zabala errektoreak, eta Joxe Mari Aizega BCC-ko zuzendariak egin diete autoritateei ongietorria.

Arratsaldeko 19:30ean bigarren ekitaldia izan da. Beste horrenbeste lagun gerturatu dira. Gehienek parte hartu dute proiektuan eta beste asko gastronomia alorreko pertsonaia ezagunak dira. Musika, ikus-entzunezkoa… ekitaldi dotorearekin egin diote ongietorria unibertsitateari. Gonbidatu guztiek Euskal Herriko sukaldariek eginiko deliziak dastatu ahal izan dituzte ondoren.

Bculinaryren sorrera agente eta erakunde ezberdinen arteko elkarlanaren ondorioa izan da, MUk maisutasunez gidatutakoa. Gobernuak, (Estatukoa eta EAEkoa), Diputazioak, ikerketaguneak, enpresa pribatuak, MONDRAGONeko kooperatibak… Era berean, sukaldari ezagun asko da Bculinaryren patronatuan. Graduetan ere esku hartuko dute: Arzak, Subijana, Berasategi, Arguiñano, Aduriz, Arbelaitz eta Atxa.

## OTSAILETIK AURRERA, 70 IKASLE

Urriaren 3an 50 ikasle hasi baziren ere, otsailetik aurrera 70 izango dira. 8.000Eko matrikula ordaindu dute, askok beken bitartez, izan ere, MUren nahia da ikasketak egiteko gai den inor kalean ez uztea. Eskoletan, sukaldaritzaz gain, kudeaketa teknikak, marketin, historia, humanitateak, fisiologia, fisika eta teknologia ere ikasiko dute.

## IKERKETA, ADN-AN TXERTATUTA

BCC ez da fakultate soil bat. Ikerkuntzan eta berrikuntzan (I+B) arituko den zentro bat ere izango da; XXI. mendeko gastronomian urratsak proposatu eta emozioak zein kontzeptu berriak transmitituko ditu. Era berean, masterrak ere egin ahal izango dira bertan.

**SUKALDEKO IZARREK** inaugurazio ekitaldian esku hartu zuten, izan ere BCCren patronatuko kideak dira horietako asko, eta beste batzuek eskolak emango dituzte Master ofizialetan.

Hori guztia gauzatu ahal izateko, punta-puntako teknologiaz baliatu dira: instalazio teknologiko ezin hobeak, sukalde berriak aurrerapen teknologiko guztiekin, ikerkuntza laborategiak, ikasgelak, areto bat, dastatze gelak… Espainiar Ministerioaren eta euskal instituzioen laguntza izan dute, 17 milioi euro guztira, aipatutakoa lortzeko.

## ERAIKIN MODERNOA

Eraikinari dagokionez, U forma du eta kanpoaldeko fatxada plater metatuz egina dagoela dirudi. Barnealdekoa, aldiz, urre koloreko xablekin estalita dago. Bost gazte donostiar izan ziren arkitektura lehiaketako irabazle. Ordutik hona, bi urte besterik ez dira behar izan eraikuntza amaitzeko.

Euskal Herria herri gastronomikoa da. Eta beste inon baino zentzu gehiago du gastronomiaren fakultateak gurean. Baina nazioarteko joera izango du eta mundura begira egongo da. Europako bigarren gastronomia unibertsitatea da, baina lehena munduan graduaz gain, ikerkuntza zentroa eta masterrak dituena.



“HEMOS SIDO CAPACES DE HACER REALIDAD NUESTRO SUEÑO EN 23 MESES”

**JOXE MARI AIZEGA**
(DIRECTOR DE BASQUE CULINARY CENTER Y VICERRECTOR DE MU)

**¿Qué es Basque Culinary Center?**

Es el resultado de la llama que han mantenido viva unos cocineros. Una llama de muchas personas e instituciones hemos sido capaces de hacer realidad. Un proyecto heredero de una cultura gastronómica, de una forma de ser que nuestras madres y abuelas han mantenido viva en sus costumbres y recetas.

**¿Es tan importante la gastronomía en nuestras vidas?**

Diría que el trabajo de los cocineros, su entrega, su pasión, su innovación es también nuestra razón de ser. Ellos son una hermandad donde no tiene sentido la distinción. Porque la gastronomía y la alimentación tienen mucho que descubrir. Además, una sociedad gastronómicamente culta es una sociedad más feliz.

**¿Cómo ha sido el camino recorrido para llegar a lo que hoy es una realidad?¿Cuáles han sido los pasos que habéis dado?**

Al principio era un muerto fértil y fuimos dándole forma. Después fuimos explicando el proyecto a las instituciones y el apoyo de todos ha sido fundamental. El edificio ganó un concurso internacional de arquitectura en 2009. Una propuesta arriesgada y diseñada por cinco donostiarras. En 23 meses hemos podido terminarlo en tiempo y en precio, hemos sido capaces de hacer realidad un sueño. Otro reto ha sido el grado. Durante un año, semanalmente nos reuníamos un equipo para crear el BCC.

**¿Dar vida al proyecto ha sido lo más difícil?**

Hay una fuerza mas poderosa que la electricidad y la energía atómica. Es la voluntad llena de ilusión, esfuerzo y determinación. Las ilusiones se contagian, y hemos sido capaces de contagiar a mucha gente. Repartiendo eso y recibiendo generosidad hemos podido superar los numerosos obstáculos.



“ERAKUNDEAK ETA LAGUNDU GAITUZTEN SEKTOREKO PERTSONAK ERE OSO GARRANTZITSUAK IZAN DIRA”

**IOSU ZABALA**
(BASQUE CULINARY CENTER-EKO PRESIDENTE ETA MUKO ERREKTOREA)

**Egun handia Bculinaryren inaugurazioarena, ezta?**

Lau urteko ametsa bete dugu gaur. Hemen dagoen zenbait jenderentzako 30 urtekoa, benetan ikaragarria. Joxe Mari Aizegak esan duen bezala, osagai goxoz egindako platera da hau. Osagaiak elkarrekin sukaldatu ditugu, ametsa betez.

**Non du jatorria proiektuak ?**

Inspirazioaz gain, sukaldari hauen pazientzia eta adorea izan dira abiapuntua. Duela lau urte gugana etorritako inspirazioa ez zaigu agortu. Euskal Herriak badu oso berea den zerbait, eta hori da gastronomia. Une hartan unibertsitatean estrategia plana bukatzen genbiltzan eta arlo berrietan lanean hasi behar genuela erabaki genuen. Orduan, gastronomiaren aldeko apustua egin genuen.

**Utopia errealitate bihurtzeko prozesua zein izan da?**

Ohartu ginen unibertsitatera sukaldaritza eramatea bakarrik ez zela nahikoa. Hori guztia indartu eta bultzada sendo bat eman behar genion. Plater onez gain, toki eta jatetxe onak ere behar genituen horretarako. Eta dudarik gabe, Donostia da lekurik aproposena.

Erakundeak eta lagundu gaituzten sektoreko pertsonak ere oso garrantzitsuak izan dira. Ezinbestekoa ikusi dugu munduko jendearengana joatea eta munduko jendea gugana erakartzea.

**Nola joan da prozesua?**

Oso atsegina izan da denon artean lan egitea. Eskerrak eman nahi dizkiet hau guztia egin dutenei. Proiektu honetan denok egin dugu lan, baina badago bat bereziki lan bikaina egin duena: sukaldariekin, unibertsitatean, instituzioekin, sektoreko jende guztiarekin…. Nire esker on guztiak adierazi nahi diot Joxe Mari Aizegari, bera da sukaldaririk handiena.

# INVESTIGAR Y TRANSFERIR CONOCIMIENTO



En el centro de investigación MIK somos 45 investigadores, algunos de los cuales se dedican exclusivamente a la I+D+i y otros compaginan la investigación con actividades docentes y académicas. De entre estos 45 investigadores podríamos destacar los siguientes:

Mezcla de nacionalidades: aunque la mayoría de nuestros investigadores son euskaldunes, también tenemos investigadores de USA, Finlandia, Argentina, Venezuela, Francia y Colombia.

Diversidad de perfiles: nuestros investigadores son economistas, ingenieros, sociólogos, psicólogos etc… lo que nos permite enfocar nuestros proyectos de I+D+i desde diferentes enfoques.

Cualificación investigadora: más de la mitad de nuestros investigadores son doctores, lo que no garantiza nada, pero sí presupone una capacidad investigadora importante.

Pero… ¿qué es exactamente lo que hacemos en el centro de investigación? Cuando nos imaginamos un centro de investigación, a muchos de nosotros nos puede venir a la cabeza un laboratorio, personas vestidas con batas blancas, probetas con líquidos extraños, etc. MIK no es así. Nosotros nos dedicamos a investigar y transferir conocimiento en temas relacionados con la gestión empresarial.

Nosotros nos dedicamos a investigar, es decir, a descubrir nuevas y mejores formas para gestionar las empresas. Para ello leemos mucho, observamos tendencias en todo el mundo, aprendemos de los mejores y pensamos en cómo se podrían mejorar las cosas en nuestras empresas.

En la medida en que vamos captando ese conocimiento, lo vamos ordenando y conceptualizando, es decir, lo convertimos en métodos o herramientas que puedan ser aplicadas en las empresas de nuestro entorno.

Finalmente, en aquellas empresas que, bien por interés o por necesidad, se presten a ello, implantamos las formas de gestión que nosotros hemos aprendido y puedan ser de utilidad para mejorar la competitividad de la compañía.

*“En definitiva, dedicamos nuestro tiempo y recursos a pensar cómo mejorar la gestión de una empresa, con el humilde propósito de poder ayudarla a mejorar su gestión y su competitividad”*

En definitiva, dedicamos nuestro tiempo y recursos a pensar cómo mejorar la gestión de una empresa, con el humilde propósito de poder ayudarle a mejorar su gestión y su competitividad. A día de hoy, desde MIK estamos trabajando y colaborando con más de 100 empresas de Euskadi, entre otras, con Euskaltel, CAF, Fagor Electrodomésticos, Repsol, Orbea, Eroski…

En MIK hemos querido delimitar nuestro campo de actuación, para centrar nuestros esfuerzos en cuatro áreas y ser realmente especialistas en las mismas. Nuestras cuatro áreas preferentes de I+D+i son:

1.- Empresa Abierta: donde investigamos para que las empresas puedan aplicar el concepto de “innovación abierta”, y con ello puedan ajustar mucho más sus productos y servicios a las necesidades y deseos de los clientes.

2.- Emprendimiento: donde ayudamos a las empresas a intraemprender y/o diversificar sus negocios, así como a los colectivos más desfavorecidos a generar sus propios negocios.

3.- Internacionalización: donde acompañamos a las empresas durante su implantación en el exterior, desde el punto de vista de las estrategias y modelos de gestión a emplear, así como de la gestión de personas a nivel global (expatriación, repatriación).

4.- Economía Social y participación de las personas: donde nos interesa descubrir y activar diferentes formas de participación de las personas en sus empresas, y ver cómo esto puede repercutir en mejoras competitivas.



**AITOR URZELAI**
MIKeko zuzendaria da.

# NAZIOARTEKO KOMITEAK EZ DU SARITU MU-K, IK4-K ETA CSIC-EK AURKEZTUTAKO PROIEKTUA



## IK4 IKERKETA GUNEAK, CSIC (CONSEJO SUPERIOR DE INVESTIGACIONES CIENTÍFICAS) ERAKUNDEAK ETA MUK ELKARLANEAN AURKEZTUTAKO PROIEKTUAK EZ DU NAZIOARTEKO KOMITEAK ONARPENIK JASO. HALA ERE, MU-REN GIDARITZAPEAN, HIRU ERAKUNDEOK EZAGUTZAN, IKERKETAN ETA TRANSFERENTZIAN OINARRITUTAKO PROIEKTUAK ERREKONOZIMENDU UGARI JASO DITU MADRILEN.

Espainiako Ministerioak urrian egin du publiko zeintzuk jasoko duten Nazioarteko Bikaintasun Campusaren izendapena 2011 urtean, eta Mondragon Unibertsitatearen proiektuak ez du aitortzarik jaso. MUk, IK4 ikerketa guneak eta CSIC erakundeak aurkeztutako egitasmoak ezagutzaren garapenean, ikerketan eta transferentzian du oinarria. Gainera, Valentzia, Madril eta Bartzelonako Unibertsitate Politeknikoen kolaborazioa ere jaso dute, eta proiektua oso erakargarria eta interesgarria dela onartu arren, aitortza ofizialik ez da izan. Iosu Zabala MUko errektorearen esanetan, “ezagutza landu, balioan jarri, ikertu eta transferitu. Horiexek izan dira gure proiektuaren ezaugarri nagusiak, baina tamalez, nazioarteko komitearen babesik ez du jaso”. Hala ere, etorkizuneko unibertsitatea eraikitzeko garrantzitsua izan da, eta MUren nazioarteko hedapena areagotzeko ere baliagarria izan da.

### NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA

Hezkuntza Ministerioak Estatu espainiarreko unibertsitateen prestigioa eta ikuspena areagotu nahi ditu Bikaintasun Campusen izendapenekin. Horren harira, aurten Estatuko unibertsitate ezberdinek elkarlanean aurkeztutako hiru proiektu saritu dituzte. Era berean, beste sei proiektuk *caracter regional* mailako izendapena jaso dute. Guztien artean ministerioak 75 milioi euroko finantziazioa banatuko du. Hauexek dira aurten aitortza jaso duten egitasmoak: Nafarroako Uniber-



ARGAZKIA: J. ARANZABAL

tsitateak gidatutako *Proyecto Horizonte* 2015; Valentzia, Elche eta Alakanteko unibertsitateek bideratutako *Campus Habitat* proiektua; eta *Campus Vida*, Santiago de Compostelako Unibertsitateak zuzendutakoa. Gainerako sei agregazioek dirulaguntza gutxiago jasoko dute euren egitasmoak garatzeko. 2011koa Bikaintasun Campusaren Nazioarteko izendapenen hirugarren edizioa izan da, eta guztira 32 unibertsitate-kontsortziok aurkeztu dute euren proposamena, horietatik 13 erabat berriak.

## UNIBERTSITATE ESTRATEGIA 2015

Unibertsitate Estrategia 2015 programaren baitan antolatu da azken hiru urteotan Nazioarteko Bikaintasun Campusa, eta helburu nagusia du Estatuko unibertsitateen modernizazioa. Unibertsitateen arteko elkarlana bultzatu nahi du eta, era berean, instituzioen arteko agregazioak eta kontsortzioak bilatzen ditu. Hain justu ere, ezagutzaren ekosistema sortu nahi du; ekonomia, enplegua eta kohesio soziala sustatzeko. 2008an antolatu zen lehenengo edizioa eta ordutik hona Hezkuntza Ministerioak 700 milioi euro inbertitu ditu dirulaguntza eta finantziazio eratan aipatu programan. Zabalaren esanetan, "bide batez Ministerioak kanpoko talentuak erakarri nahi ditu Estatura".

IOSU ZABALA ERREKTOREAK, ETA JON ALTUNA ERREKTORE ORDEAK ordezkatu zuten Mondragon Unibertsitatea urriaren azken astean Madrilen izandako ekitaldian. Besteak beste, estatu osoko 32 kontsortziok aurkeztu zituzten proiektuak eta horietatik bederatzik jaso zituzten izendapenak.

## MU ETA NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA

Mondragon Unibertsitatea iaz ere aurkeztu zen Nazioarteko Bikaintasun programara, orduan bidelagunik gabe. "Aurten gure estrategia Ministerioak eskatzen duen formatura egokitu dugu. Bidelagunak aurkitu ditugu, eta proiektua ezagutzan, ikerketan eta transferentzian oinarritu dugu". MUren proiektua, Transferentziaren unibertsitatea izenekoa, gizartea eraldatzeko konpromisoarekin sortu zen. Gazte aske, kritiko, konprometitu eta sortzaileak bultzatzeko asmoarekin. "Bikaintasunaren gure ikuspegia da eraldaketa prozesu horretan jarrera aktiboa edukitzea".

Iazko edizioan MU izan zen finalera iritsi zen unibertsitate pribatu bakarra, horrek hedapen handia eman zion unibertsitateari eta Estatuan ezagunagoa bilakatu zen. "Nahiz eta izendapena lortu ez, prozesuan parte-hartzea oso garrantzitsua izan zen eta izan da aurten ere. balio izan du MUren proiektua gure mugetatik kanpo →

hedatzera emateko, bai iaz eta baita aurten ere".

### KONPROMISOA GERTUKOEKIN

Lan egin gertuko gizartea eta enpresak erakargarri eta konpetitiboak izan daitezen. Hori ere bada MUren ADNaren ezaugarrietako bat, eta Madrilera filosofia hori hedatzeko asmoarekin joan dira unibertsitateko ordezkariak. "Gure indarra da enpresarekin elkarlanean aritzea, indarguneak identifikatzea eta horiek lantzea. Baina ezagutzaren garapenean bide-lagunak behar genituen eta horrexegatik kontsortzio bat eratu genuen IK4 eta CSIC moduko erakundeekin". Bi erakundeok erreferentziazkoak dira Euskal Herrian zein Espainiako Estauan.

### ETORKIZUNEKO PROIEKTUA

Ikerketa kolaboratiboaren modeloa Ministeriora hedatzeko aukera ere aprobetxatu du MUk. "Agregazioaren ikuspegitik ezagutza, ikerketa eta transmisioa ditu oinarrian, eta bost arlo konkretu jorratzen ditu gure proiektuak: diseinu industrialaren garapenean, sistema txertatuetan, materialeen garapenean, gastronomiaren teknologia eta zientzian, eta energia berriztagarrien berreskurapen eta bilketan". Arlo horietan guztietan MUk ekintzaileak ditu, ezagutzaren transferentzian ere sekulako eskarmentua du, administrazio publikoari teknologian saltzeko gaitasuna du eta modeloa nazioartekotze prozesu batean dago murgilduta.

MUko errektorearen esanetan, Madrilen urrian aurkeztutako proiektuak etorkizunean balio handia izan dezake. "IK4 eta CSIC erakundeekin harreman estua edukitzeak ematen digu aukera ikerketetara sarrera zuzena edukitzeko". Era berean, Euskadiko enpresei, eta batez ere MONDRAGON Korporaziokoei zerbitzu hobea eskaintzeko aukera ematen die.

### NAZIOARTEKOTZEA GARRANTZITSUA MU-RENTZAT

Urrian Madrilen izandako ekitaldian 2009an izendatuak izan ziren proiektuen emaitzak ikusteko aukera izan zuten MUko ordezkariek. Kudeaketa modelo ezberdinak dituzten unibertsitateek aurkeztu zituzten azken bi urteotan egindakoak. "Inportantea izaten da ikustea beste batzuek nola kudeatzen duten prozesua; izan ere, gobernatzeko erak gero eta garrantzi handiagoa du". Gobernatzearen kontuari gero eta garrantzi handiagoa ematen diote, alegia, proiektuen bideratzaileek erakutsi behar dute eskarmentua badutela eta gauzak ondo egiten badakitela. "Erakunde, erritmo eta helburu ezberdinak dituzten kontsortzioak gobernatzea ez da erraza izaten", gaineratu du Iosu Zabalak, eta arlo horretan ere ikasteko aukera izan dute MUko ordezkariek.




> "Aurten gure estrategia Ministerioak eskatzen duen formatura egokitu dugu. Bidelagunak aurkitu ditugu, eta proiektua ezagutzan, ikerketan eta transferentzian oinarritu dugu".



NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA Espainiako Hezkuntza Ministerioak jarri zuen abian 2009an, Estatuko unibertsitate sarea moderni-zatzeko helburuarekin.

# COLABORACIÓN ENTRE CIENCIA Y EMPRESA, PARA EL BIENESTAR DE LA SOCIEDAD

A menudo se acusa a los investigadores de vivir de espaldas a las necesidades de la industria, como si el conocimiento quedara recluido a los laboratorios y publicaciones científicas. Sin embargo, esto no se ajusta totalmente a la realidad. El problema radica en cómo hacer que los resultados de los centros de investigación y universidades lleguen al entramado industrial. No es fácil. Quizá por la inercia generada por la falta de diálogo entre academia e industria. Además, en Ciencia, somos un país joven que ha tenido dificultades para equipararnos, al menos, a un nivel similar al de Europa. Y la industria ha mirado a otro lado para solucionar sus problemas.

Son muchas las variables que afectan a que la colaboración entre Ciencia y Empresa no haya sido la que el país necesita, máxime en la situación actual (que, seguramente, sería mejor si esta colaboración hubiera existido). Soy consciente de la necesidad de trasmitir nuestras aportaciones, en primer lugar a la comunidad científica, porque sólo mostrándolo a otros colegas podemos medir los resultados. También estoy convencido de que los resultados son perfectamente aprovechables por nuestro tejido industrial. Por tanto, desde las instituciones científicas hay que proponer iniciativas para que lleguen a la ciudadanía. Una de estas, pionera, arriesgada y con un futuro prometedor es el Campus de la Valorización, Transferencia y Conocimiento que promueve Mondragon Unibertsitatea y que el Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC), como socio promotor y fundador, apoya.

Para el CSIC esta colaboración es un reto apasionante. Una institución centenaria, con 128 institutos de investigación en España (y un centro singular de investigaciones arqueológicas en Roma) y casi 15.000 trabajadores tiene como objetivo que los conocimientos se transformen en bienestar social, económico y cultural para la sociedad. De 3.100 investigadores del CSIC, en

*Estamos convencidos que esta alianza con MU en el marco del Campus VTC es una herramienta que ayudará a transformar nuestra industria en la que necesita la sociedad española del siglo XXI.*



**Juan José de Damborenea**
Vicepresidente Adjunto de Áreas Científico -Técnicas del CSIC

2010 más de 2.900 participaron en contratos y convenios con empresas. Las ocho áreas científico-técnicas del CSIC, desde Ciencias Humanas y Sociales hasta Ciencia y Tecnología de Alimentos, pasando por Biología y Biomedicina, Recursos Naturales, Ciencias Agrarias, Física, Química y Materiales, han estado implicadas en procesos de transferencia.

Por eso, estamos convencidos de que esta alianza con MU en el marco del Campus VTC es una herramienta que ayudará a transformar nuestra industria en la que necesita la sociedad española del siglo XXI.

## ALECOP

# REFRESCAR LOS OBJETIVOS FORMATIVOS




UNA VEZ FINALIZADAS LAS MÁS QUE NECESARIAS VACACIONES DE VERANO, LLEGA PARA EL ALUMNADO. LA TAN TEMIDA VUELTA A LAS AULAS Y CON ELLA LA NECESIDAD DE CENTRARSE EN "LOS ESTUDIOS", PENSANDO EN EL FUTURO PROFESIONAL MÁS INMEDIATO.

Al igual que en cualquier proyecto empresarial, en los estudios universitarios también es preciso refrescar al inicio de cada curso los objetivos formativos que se hayan propuesto conseguir y cómo se van a lograr. Ya son muchos los escolares que incluyen entre estos objetivos la adquisición de una experiencia profesional en el ámbito laboral, a través de un modelo formativo en alternancia que combina formación académica y formación en un entorno laboral real.

### ALTERNANCIA FORMATIVA ESTUDIO-TRABAJO

El cambio que supone pasar del Bachillerato a nuestra universidad es muy significativo y es recomendable, durante el primer año, centrarse en el modelo académico y su organización, dejando para los siguientes cursos esta opción de "alternancia", que está basada en el desarrollo personal de aspectos como el trabajo en equipo, la resolución de problemas, la comunicación, la planificación y otras competencias de carácter general y comunes, tan valoradas y reconocidas actualmente en las empresas más punteras de nuestro entorno, tanto en las personas de la organización, como en las nuevas incorporaciones.

### DESARROLLO PERSONAL

En la medida que esta experiencia demuestra sus bondades en el desarrollo personal del alumnado participante, en aspectos como la organización personal, la cooperación, la toma de decisiones y otros aspectos que les dan un carácter y un estilo de actuación más maduro, y que deja de ser únicamente una ayuda económica en los estudios, es el propio alumnado quien se interesa por la misma, quien requiere más información y convence en su casa de la idoneidad de esta experiencia.

Bien es cierto, que la actual situación económico-laboral que estamos padeciendo dificulta la generación de este tipo de puestos formativos, pero somos conscientes de que serán las empresas con más visión social y de futuro las que se preocupen de propiciarlas en pos de unas plantillas mejor preparadas para su modelo empresarial. Por lo que cobra especial interés para el alumno aprovechar las oportunidades y así tener la ocasión de participar en estas empresas y poder demostrar su valía, a través de un desarrollo complementario de su perfil profesional.

